

## EDITORIALA

**Gutxi genuen, gutxiago dugu**

ELAk aurkeztu berri duen txosten batek datu kezagarriak utzi ditu: aberastasunaren banaketa gero eta bidegabeagoa da. Errealitate hau jakina zen, agerikoa eta begi-bistakoa. Baina txostenak jasotzen dituen datu sortak ikara sortzen du. Aberastasunaren banaketaren bilakaera aztertzea ezinbestekoa da egungo ekonomia kapitalistan gertatzen dena ulertu ahal izateko, nortzuk irabazi eta nortzuk galtzen duten ikuskatzeko hain zuzen.

Eta datuek argi uzten dute. 2010ean EAEn soldatapeko langileen errentak ordaintzeko BPGaren %49,2 erabili zen, 2015ean %46,7 bideratu zelarik. Horrela, 992,8 milioi euro gutxiago bideratu dira errenta hauetara epealdi horretan, Barne Produktu Gordinaren (BPG) osotasunean 1.620,9 milioi eurotan hazi den bitartean.

Nafarroan, bestalde, beherakada are handiagoa izan da: 2010ean BPGaren %50,1 bideratu zen langileen errentetara eta 2014an (azken datua), aldiz, %47,3. Gutxitzea, lurralde honetan, 809,9 milioi eurokoa izan da 2010-2014 epealdian, epe berean BPG orotara 11,2 milioi eurotan murriztu delarik.

Estatu espainiarrean murrizketa BPGaren %50,2 bideratzetik 2010ean, %47,6 bideratzera izan da 2015ean. Epealdi horretan BPG osoa 5.274 milioi eurotan hazi da, baina langileen errentetara bideraturiko aberastasuna 29.914 milioi eurotan murriztu da.

Ondorioa agerikoa da. Azken urteotan pairatzen ari garen eraso neoliberalak, besteak beste, langile klasearen aberastasun zatia murriztu egin du, 2010etik 2015era langileen aberastasuna %5 gutxiago izanik. Horren beste aldean, kapitalisten esku dagoen aberastasuna gero eta handiagoa da eta gero eta kontzentratuago dago esku gutxi batzuen menpe. Esan bezala, aberastasuna gero eta modu bidegabeagoan banatzen da.

Tras cinco meses en huelga, las y los trabajadores de Ingemar alcanzan un acuerdo con la dirección que garantiza el futuro de la empresa

## LA PLANTILLA PARA EL CIERRE DE INGEMAR

Han sido necesarios cinco meses de huelga, pero la plantilla de Ingemar, de Usurbil, ha logrado un acuerdo con la empresa que garantiza el futuro de la planta. El acuerdo alcanzado prevé el mantenimiento de una plantilla de 51 personas, la ejecución de un Plan de Viabilidad que garantice la actividad productiva en Usurbil, la aprobación por parte de la junta de accionistas de una ampliación de capital, así como la implicación institucional en el proyecto.

Manu Tena, responsable de Industria eta Eraikuntza, muestra su satisfacción por una pelea sindical, liderada por ELA, que ha dado los frutos buscados. "Se ha demostrado, una vez más, que luchar merece la pena", afirma con orgullo.

-¿Cuáles han sido las claves de este conflicto?

-Hay que decir alto y claro que si Ingemar continúa en Usurbil es gracias a la pelea y la firmeza de la plantilla actual que ante la hipótesis muy real de cese de la actividad industrial, en enero



de 2016, en vez de quedarse con los brazos cruzados, decidió luchar por su futuro.

Teníamos noticias veraces de que se estaba planteando el cierre, y es por eso que empezamos a reunirnos con dirección e instituciones para evitarlo. Algo que, tras meses de lucha hemos conseguido.

-En un primer momento, la estrategia fue buscar nuevos inversores.

-Sí, la primera opción fue iniciar un proceso de búsqueda de inversores, con diferentes episodios que estuvieron al borde de dar frutos pero, al final, todos se truncaron.

(Sigue en la página 2)

## ABERASTASUNAREN BANAKETA, GERO ETA BIDEGABEAGOA

ELAk Hego Euskal Herriko egungo abagune ekonomiko eta soziala aztertzen duen txostena aurkeztu zuen azaroaren 21ean Bilbon. Eta, txostenak jasotzen duen ondorio nagusia ezin kezagarriagoa da: azken bost urteotan (2010-2015 epean) aberastasunaren banaketak nabarmen egin du langileriaren aurka, langile klasearen errentetara bideratzen den BPGaren (Barne Produktu Gordina) zatiak beherakada nabarmena izan baitu. EAEn %49,2tik %46,2ra eta Nafarroan %50,1etik %47,3.

Datu honen zergatia bilatzeko orduan, ELAko idazkari nagusi Adolfo Muñozek argi utzi zuen bere ustez zein den arrazoia. "Aberastasunaren banaketak nabarmen egin du langileriaren aurka, eta hau gertatu da neoliberalismoa indartsu dagoelako eta oposizioari ez diolako beldur handirik. Pairatzen dugun aldi neoliberalaren xedea da proiektu politiko, sozial eta sindikal eraldatzaileak desagitea. Noski, gure erronka horri aurre egitea da".



De izquierda a derecha Iñaki Salaberri, miembro del Gabinete de Estudios, Adolfo Muñoz, secretario general, y Mikel Noval, responsable de política social. Los tres presentaron el 21 de noviembre un informe que analiza la actual coyuntura económica y social. El informe demuestra una vez más que la distribución de la riqueza es cada vez más injusta. (El informe íntegro está disponible en la página web de ELA)

**1.200  
EUROTIK  
GORA**



**Manu Tena, responsable de la federación Industria eta Eraikuntza en Oriagoierri, delante de la sede de Ingemar en Usurbil.**

**-Fue después cuando os centrasteis en forzar a la dirección a dar una salida industrial a la planta.**

-Cuando una multinacional se quiere marchar es difícil obligarle a dar marcha atrás, pero no imposible. Teníamos el ejemplo de Marie Brizard, no hace tanto, en el que la lucha de la plantilla obligó a la dirección a modificar sus planes iniciales. Y ahí están, trabajando.

Por tanto, sabíamos que era difícil pero no imposible. Entre otras razones porque estábamos convencidos de que Ingemar era viable, que los problemas eran de gestión y organización. No

admitimos, en ningún momento, ni el cierre ni la desaparición de la actividad industrial y, por ello, en junio iniciamos una huelga indefinida que ha durado hasta hoy.

La huelga, secundada por la totalidad de la plantilla, puso en jaque la actividad del grupo, y la Dirección se vio obligada a poner encima de la mesa diferentes propuestas, hasta que hemos llegado a un buen acuerdo, que fue refrendado por la plantilla y que nos ha devuelto a la normalidad.

Esto ha sido, posible, también, gracias al compromiso que habíamos

logrado de la Diputación de Gipuzkoa: si trabajadores/as y dirección llegáramos a un acuerdo, apoyarían el proyecto, tal como ha sucedido, finalmente.

**-Una victoria sindical en toda regla.**

-Sin duda. La lucha de la plantilla de Ingemar Usurbil se convierte en una constatación más de que, ante los intentos de deslocalización de una empresa, la unión, la lucha y el convencimiento se convierten en la clave para cambiar decisiones empresariales y para el mantenimiento de nuestro tejido industrial.

**-Cinco meses de huelga indefinida... La Caja de Resistencia se ha demostrado, una vez más, como un instrumento vital.**

-Sin Caja de Resistencia el resultado hubiera sido muy distinto. Estamos convencidos de ello. Que la mayoría de la plantilla fuera de ELA (4 delegados de ELA, 1 de LAB) ha permitido mantenernos fuertes en el conflicto, con un apoyo económico que nos ha permitido resistir. ¿Cuántas peleas se pierdes o, incluso, no se inician porque no existen medios para ello? En un contexto como el actual, es impensable empezar una pelea, con posibilidades de éxito, sin Caja de Resistencia.

**-¿Y ahora qué?**

-Vamos a seguir trabajando sindicalmente, como hasta ahora, y vigilando el cumplimiento de lo firmado.

## UN REFERENTE EN EL SECTOR

**La planta de INGEMAR, S.A de Usurbil, pertenece al GRUPO INGEMAR. Este grupo es un referente en la producción, distribución y comercialización de mármoles y granito.**

**Desde el año 2009, esta dirección ha estado llevando a cabo una reestructuración tras otra, con el ánimo de deshacerse de la plantilla, ir poco a poco descapitalizando la planta de INGEMAR, S.A (Usurbil) y deslocalizar la producción.**

**El acuerdo alcanzado ahora, tras cinco meses de huelga de la plantilla, pretende marcar un punto de inflexión.**



**Unai Martínez, secretario general de la federación Industria eta Eraikuntza, exige a Sidenor que garantice los puestos de trabajo y el futuro de las plantas**

# “RECHAZAMOS DE PLANO EL ERTE EN SIDENOR”



La nueva dirección de Sidenor ha planteado un ERTE (Expediente de Regulación Temporal de Empleo) que afectaría a todas las plantas que el grupo tiene en Euskal Herria. Unai Martínez analiza esta propuesta que Sidenor tiene “intención de negociar” a partir del 28 de noviembre, según ha anunciado la propia dirección.

**-¿Qué lectura haces del anuncio de Sidenor de negociar un ERTE?**

-Lo primero, evidentemente, es rechazar de plano el ERTE. Además de mostrarnos en contra de esta decisión, consideramos que puede ser el primer paso para comprometer el futuro de alguna de las plantas

actuales. Es evidente que con este ERTE la dirección quiere disfrutar de una flexibilidad total, con la capacidad de que cuando quiera pueda enviar al desempleo a los y las trabajadoras. Una vez más se quiere utilizar el dinero público (las prestaciones de desempleo) para financiar las cuentas de una empresa privada.

**-La dirección ha hecho este anuncio a las puertas de iniciar la negociación del acuerdo marco de Sidenor...**

-Es una decisión premeditada. Aquí *casualidades* las justas. Una vez más, continuando la cultura empresarial establecida por Gerdau, se quiere iniciar un proceso negociador en una coyuntura de chantaje. Los sucesivos recortes aceptados por la mayoría sindical de Sidenor los últimos años, lejos de garantizar el futuro de las plantas, han alimentado una política empresarial por la que, extendiendo el miedo por el futuro del empleo, se consiguen empeorar sustancialmente las condiciones laborales.

**-En mayo de este año, un grupo de empresarios vascos compró la empresa a la compañía matriz, la brasileña Gerdau. ¿Ha cambiado la situación para las y los trabajadores?**

-En ELA solemos analizar las actuaciones de las direcciones de empresa por sus hechos concretos. El

paso de la multinacional Gerdau fue nefasto para la industria de Euskal Herria. Además de una política de relaciones laborales lamentable, se produjeron cierres de plantas (Legazpi, Elgeta) que han supuesto una pérdida muy importante para nuestro tejido industrial. La decisión de plantear un ERTE por parte de los nuevos responsables de Sidenor no corrige el rumbo establecido por los anteriores propietarios.

Ante la compra de Sidenor por parte de un grupo de directivos a la multinacional Gerdau, las instituciones vascas —encabezadas por el Gobierno Vasco— mostraron una posición de absoluta satisfacción. Y no olvidemos que algunos sindicatos también se sumaron a la posición del Gobierno.

Por esto exigimos al Gobierno Vasco que explique a los y las trabajadoras de Sidenor en qué se basaba su tremenda satisfacción por la compra de directivos locales de la empresa. Para plantear un ERTE, empeorar condiciones laborales, no realizar inversiones o comprometer el futuro de algunas plantas la procedencia de la dirección es indiferente.

Mientras tanto, ELA seguirá a lo suyo. Luchamos y apostamos por un Sidenor donde se garanticen los puestos de trabajo, el futuro de las plantas y las condiciones laborales. Consideramos que la nueva dirección, en su primera decisión de calado, no garantiza ninguna de las premisas establecidas por ELA.



**Bizkaiko Erresidentzietako delegatuek greba eta mobilizazio txanda berriak adostu dituzte; abenduaren 15ean hasiko da deialdi berria, eta gutxienez urtarrilaren 6a arte luzatuko da**

# “EZ DUGU ETSIKO GURE LAN-BALDINTZAK DUINDUKO DITUEN AKORDIO BAT LORTU ARTE”



**Ante la negativa de las patronales del sector a negociar el convenio del sector de residencias y la falta de implicación de la Diputación Foral de Bizkaia, ELA celebró el 23 de noviembre una asamblea de delegados y delegadas para estudiar un nuevo calendario de movilizaciones que permita superar el bloqueo existente en este momento. Las más de 100 delegadas presentes en la asamblea reafirmaron una vez más su compromiso de seguir luchando hasta conseguir un convenio que dignifique sus condiciones laborales. En este sentido, acordaron una nueva tanda de huelga y movilización que, si no hay acuerdo previo, comenzará el 15 de diciembre y se prolongará ininterrumpidamente como mínimo hasta el 6 de enero del 2017, sin descartar que si para esa fecha no se ha llegado a un acuerdo se prolonguen las jornadas de huelga.**

Azken Astekarian aurreratu genuen Bizkaiko Foru Aldundiak eta sektoreko patronalek –GESCA, ELBE eta LARES– egungo jarrerarekin jarraitzen bazuten ELAk mobilizazio eta greba berriak proposatuko zituela. Zoritxarrez sindikatuak egindako iragarpen ezkorrenak bete dira; azken mobilizazio eta greba deialdiak amaituta –urriaren 24tik azaroaren 11ra– mahaiaren bestaldean egon behar luketen horiek *desagertuta* jarraitzen dute.

Egoera honen aurrean, azaroaren 23an ELAk sektorean dituen 100 dele-

gatutik gora elkartu ziren aurrera begirako urratsak zehazteko. Asanbladan parte hartu zuten langileen ordezkariak hitz gogorrak izan zituzten patronalaren burugogorkeriaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arduragabekeriaren aurka. Hori esanda, guztiak bat etorri ziren gatazkan jarraitzeko asmoa dutela iragartzeko orduan. Noiz arte? Langileen eskariak betetzen diren arte, ratioak hobetzeko diru-sail nahikoak hornitzen dituzten arte, zentroetako pertsonala handitzen den arte, eta langileen baldintzak duintzen dituzten arte.

Bizkaiko Erresidentzietako langileen ordezkarien asanblada amaituta, ELAk sektorean dituen arduradun Gaizka Miguelek eta Soraya Garciak aurreratu zuten lanuzte, greba eta mobilizazio txanda berria abenduaren 15ean hasiko dela. “Noski, lehenago akordiorik edo adostasunik ez badago egun horretan hiru astetako greba hasiko dugu, 2017ko urtarrilaren 6a arte”. Eta, egun horretarako ere akordiorik ez badago? Hona Miguelen eta Garciaren erantzuna. “Ba greba-egunak are gehiago luzatuko dira. Azken asteetan zehar egindako bileretan eta azaroaren 23an egindako biltzarrean ordezkariak aho batez erabaki dute greba-deialdia ontzat ematea. Langileak sinetsita dauke soilik borrokan jarraitzen badugu lortuko dutela euren lan-baldintzak duintzea. Horregatik greba eta gatazka

azken muturreraino eramateko prest daude, aho-batez hala adierazi dutelako behin eta berriz”.

Greba deialdi berri honen aurrean, grebarekin bat egin dezatela eskatu nahi diete ELAko arduradun hauek gaitzetzeko sindikatuei. “Behin baino gehiagotan adierazi dute Bizkaiko zahar-etxeetako egoeraren diagnostikoarekin bat datozela. Berriki LABek diagnostikoa eta helburuekin bat datorrela azpimarratu du. Zergatik ez dago greban? Argi eta garbi dago gatazka honetan greba beste biderik ez dagoela. Patronalaren negoziazio borondate ezaren aurrean langileen aldarrikapenak defenditzeko greba beste biderik ez dago. Euren azaldu beharko dute zergatik ez dauden borroka honetan. Guri, behintzat, ulergaitza egiten zaigu”.

## “NO ACEPTAREMOS NINGÚN PASO ATRÁS EN LAS RESIDENCIAS DE GIPUZKOA”

ELA convocó el 23 de noviembre la mesa negociadora para la negociación de un nuevo convenio colectivo de carácter sectorial para el año 2017 en las Residencias de Gipuzkoa. Por la parte sindical acudieron ELA –7 representantes–, LAB –2–, UGT –1– y CCOO –1–. Por su parte, por la parte patronal acudieron ADEGI-CEOE, LARES, MATIA 2020 y a la Asociación Empresarial de Residencias, que tiene su nueva sede social en GAREN.

Sin embargo, la mesa sectorial no se constituyó por las profundas divergencias que se pusieron de manifiesto en la representación empresarial. Después de un receso de más de una hora, la patronal comunicó que no había acuerdo entre los distintos agentes para concretar que representación ostenta cada asociación patronal. En este contexto, ELA aceptó suspender la reunión y que la siguiente mesa se celebre el jueves 12 de enero de 2017, tras comprometerse la parte patronal a traer una posición acordada y unitaria sobre su representación.

ELA quiere dejar claro que, más allá de aclarar quién ostenta la legítima representación patronal, nuestro sindicato no va a admitir ni un paso atrás en los derechos de las trabajadoras que con mucho esfuerzo y lucha hemos consolidado.

## LABURREAN / BREVES

### ● La mayoría de la plantilla da la espalda al acuerdo de Mercedes

El 24 de noviembre la plantilla de la factoría que Mercedes tiene en Gasteiz votó sobre el acuerdo alcanzado por la minoría sindical –UGT, Ekintza y PIM– con la dirección en torno al convenio colectivo. Un referéndum que, según denuncia Igor Guevara, delegado de ELA y responsable del Comité de Empresa, se produjo sin ninguna garantía democrática. “La plantilla no ha tenido la oportunidad de conocer en profundidad los contenidos del acuerdo, culminando un proceso negociador oscurantista, sin que los y las trabajadoras hayan podido conocer con suficiente antelación el contenido de lo acordado”.

Guevara denuncia, además, que la dirección de la empresa presionó durante todo el día a los y las trabajadoras para que acudieran a votar. “Esta presión se produjo especialmente sobre el colectivo de perso-

nas con contrato eventual, en torno a 1.900, que se han visto obligadas a participar en la votación. Además, hay que recordar que directivos, trabajadores/as *extra convenios* y mandos, que suman unas 650 personas, han tenido posibilidad de participar en la votación”.

“A todo esto, –añade– solo UGT, PIM y Ekintza han controlado los censos y las urnas. Tenemos constancia de que se han aceptado votos delegados y no se ha ejercido control objetivo alguno sobre las urnas. Estos condicionantes solo nos pueden llevar a calificar el proceso de antidemocrático y falto de transparencia”.

Pese a todas estas irregularidades y déficits democráticos, Igor Guevara destaca que menos de la mitad de la plantilla –2.241 sobre un total de 4.997– votó en favor del acuerdo. “El resultado de esta votación no convierte de ninguna manera el acuerdo firmado en minoría en un acuerdo aceptado por la mayoría de

los trabajadores y trabajadoras. Por ello consideramos imprescindible continuar con la lucha por unas condiciones de trabajo dignas en Mercedes, y ELA instará al resto de Secciones Sindicales a reabrir la mesa de negociación”.

### ● ELAk bat egin zuen Altsasuko lanuzte eta manifestazioarekin

ELAren ordezkari zabal batek –Adolfo Muñoz idazkari nagusia buru– parte hartu zuen azaroaren 26an Altsasun deitutako manifestazioarekin. Urriaren 15ean bertako taberna batean izandako liskararen harira egindako atxiloketek eta legedi antiterroristarekin epaituak izateko Auzitegi Nazionalera eramanez zentzugabekeria da, arbitrarioa. Gainera, ELAk eta LABek deitutako azaroaren 25ean lanuzteak egin ziren Sakanako enpresetan.



ELAk formazio jardunaldia egin zuen Indarkeria Sexistaren Aurkako Nazioarteko Egunean

## INDARKERIA SEXISTAREN AURPEGI ETA ERANTZUN EZBERDINAK AZTERGAI



ELA realizó el 25 de noviembre una jornada de formación, con motivo del Día Internacional Contra la Violencia Sexista. En el acto celebrado en Bilbao se debatió sobre cómo hacer frente a la violencia sexista, analizando este tema desde diferentes aspectos. En la imagen, de izquierda a derecha, Laura Gomez Hernandez, Maria Viadero Acha, Jone Bengoetxea e Itziar Gandarias Goikoetxea.

Indarkeria sexista gure gizarteak sufritzen duen arazo estruktural larria da. Baina, zehatzagoak izanda, ez dago indarkeria sexista bat, indarkeria sexista asko daude, gure egunerokotasunaren hamaika esparrutan islatzen direnak. Horregatik indarkeria sexistak erantzun ezberdinak behar ditu, indarkeria honek eragiten duen alor ezberdinak kontutan hartuta. Hain zuzen, hori izan zen azaroaren 25ean –Indarkeria Sexistaren Aurkako Nazioarteko Eguna– ELAk Euskal Herriko Unibertsitateak Abandoibarran (Bilbo) duen Paraninfoan antolatu zuen formazio jardunaldiaren gaia.

Zer egin indarkeria sexistaren aurrean leloarekin izen handiko hiru adituk mahai-inguru interesgarria eskaini zuten lehenik: **Laura Gomez Hernandez**, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun saileko arduradun ohia, **Maria Viadero Acha**, Mugarik Gabe Gobernu Kanpoko Erakundearen kidea, eta **Itziar Gandarias Goikoetxea**, Mujeres del Mundo eta Mundu Martxako militantea. Saioa ELAko berdintasun arduradunak zuzendu zuen, **Jone Bengoetxeak**. Denen artean indarkeria sexistari esparru ezberdinetatik eman daitezkeen erantzunen inguruan eztabaidatu zuten.

**Laura Gomez Hernandezek** administrazio publikoek indarkeria sexistaren aurka borrokatzeko orduan egin dezaketen ekarpenaz mintzatu zen. “Neoliberalismoak emakumeen bizitza mehatxatzen du. Hau oso agerikoa den errealitate bat da. Horregatik administrazio publikoek ezin dute indarkeria sexistaren aurka borrokatu baldin eta ez badute ezberdintasun ekonomikoaren aurka borrokatzen. Indarkeria matxista indarkeria sistemikoa da. Beraz, indarkeria hau ahalbidertzen duen sistema horren kontra ezer egiten ez baduzu, alferri da”.

Gipuzkoako Foru Aldundian lau urtez izan zen Laura Gomez Hernandez Berdintasun saileko arduraduna. Esperientzia horretatik argi du ezinbestekoa dela administrazio publikoaren eta mugimendu feministaren arteko elkarlana. “Indarkeria sexista hobeto ulertzen azalduko duen narratiba berri bat egituratu beharra dago, eta horretarako elkarlan hau ezinbestekoa da. Bide honetan indarkeria sexistarik gabeko bizitza eskubide gisa onartu behar da, arazo honen biktimak aitortuz”.

**Maria Viadero Achak** urteak daramatza Mugarik Gabe erakundearen lanean, berdintasun arduradun gisa. Mundu zabaleko emakumeekin lan egin ostean, argi du –zorritzarrez– gai hau ez dagoela agenda politikoaren erdian. “Sistemak ezberdintasun logikak bultzatzen ditu alor guztietan; indarkeria sexistarekin ere bai. Ez du ezertarako balio esatea indarkeria sexistaren aurka zaudela gero horren kontra borrokatzeko ez baduzu ezer egiten. Eta zein da errealitatea? Ba erakunde publikoek urtez urte murrizketak egiten dituztela arazo larri honen aurka borrokatzeko ezinbestekoak diren gizarte-politika ezberdinetan. Honek, besteak beste, argi uzten du gai hau ez dagoela agenda politikoaren lehentasunen artean”.

Indarkeria sexistaren aurka borrokatzeko orduan dauden arazoez ere hausnartu zuen. “Indarkeria hau naturalizatzen duen testuinguru batean bizi gara. Eta mugimendu feministak berdintasunaren alde borrokatzen duen bezala, mugimendu matxistak ere bere mesedetan borrokatzen du. Zentzu honetan talde matxistak berrantolatzen ari dira, estrategia matxista berriak dituzte euren pribilegioekin jarraitu ahal izateko. Honen kontra ere borrokatu beharra da, ez dugulako gizarte hobea bat lortzerik izango baldin eta indarkeria matxistaren aurka borrokatzen ez bada”.

Deustuko Unibertsitatean psikologia irakaslea izateaz Mujeres del Mundo eta Mundu Martxako mili-

tantea ere bada **Itziar Gandarias Goikoetxea**. Bere hitzaldian argi utzi nahi izan zuen ezin dela indarkeria sexistaren inguruan hitz egin, indarkeria sexista asko daudenez pluralean mintzatu beharra dagoela. “Azken urteotan Mundu Martxan apustu bat egin dugu gure artean: emakumeen artean dauden ezberdintasunak zeintzuk diren ikusi eta hauek islatzea. Adibidez, berriki Donostian izan genuen Mundu Martxaren azken topaketan emakume anitz asko bildu ginen eta emakume anitz askok konpartitu zituzten gaur egun bizi dituzten indarkeria bizipenak. Jatorri, belaunaldi, gorputz desberdinak dituzten pertsonak, emakume etorkinak, aniztasun funtzionala duten emakumeak, sexu langileak, emakume langileak...”

“Aniztasun horretan –gaineratu zuen– Mundu Martxan konturatu gara indarkeria matxista gure gorputzetan oso modu ezberdinetan ezaugarritzen dela. Indarkeria matxistaz jarduten dugunean indarkeria sistema asko daude. Horregatik duela urte gutxi biolentzia kontzeptua zabaldu genuen, indarkeria transistemiakoak hitz egiten hasi ginen. Oso kontzeptu potoloa da, baina oso erraza. Hau da, indarkeria matxista sistemikoa da eta dimentsio ugari ditu. Zapalkuntza sistema desberdin horiek ez daude airean, gure gorputzetan adierazten dira”.

Formazio saioa **Bea clown**-aren ikuskizun eder batekin amaitu zen. Umoretik aritu zen, arma gutxi daudelako umorea bezain indartsuak. Eta, goizeko saioari amaiera emateko, bildutako ehunka lagunek elkarretaratzea egin zuten, lan munduak indarkeria sexistaren aurkako borrokan zeresan asko duela aldarrikatzeko. Arratsaldean, berriki, ELAk bat egin zuen mugimendu feministak Euskal Herriko hiriburuetan deitutako mobilizazioekin.



[www.ela.eus](http://www.ela.eus) / @ELAsindikatu / ELA-Facebook

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

astekaria

Barrainkua 13, Bilbao  
Tel. 94 403 77 00  
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

[www.ela.eus](http://www.ela.eus)

Franqueo concertado  
nº 08/207